

Karlos Gorrindo Etxeandia

EUSKARA TEKNIKARIA ♦



INIGO AZKONA

Maitasuna

PRESA HANDIA izan dute EAJ-PNVkoek matrimonio eraberriturako ezkontide zaharberrituari proposamen lizunak egiteko. Ez dute zalantzarik izan. Sentimenduak sentimendu dira, benetakoak eta bihotz-bihotzekoak. Elkar maite dute. Izango dituzte desadostasun eta haserreak (Andoain eta Gasteiz), baina zer dira zirtzilkeria horiek, ezkontideen arteko sentimendu eta elkarri dioten errespetuaren aldean?

Ezkontideetako ausartenak (PNV) elizarako abiada bizia hartu du, inork ustekabeko eskaintzarik egin aurretik (EH Bildu). Bestela ere, bigarren aukera honek ez die egonkortasunik ematen. Matraka zaleak dira gainera, itun, hitzarmen eta negoziazio gaitan trebatu gabeak. Zaborra zabaldu nonahi, horixe egiten baino ez dakite.

Dena den, kariñoa-edo eragiten die bihotzondoan. Eta (Gure) eskutik oratuta ere ikusiko ditugu tarteka-marteka. Baina ezkutuan edo, lotsatuta baleude bezala. Izan ere, etxeak dira eta. Baina kalezale zalapartari demonio ere bai. Eta, gainera, bezatu barik daude, domestikatu barik, eta arlo domestikorako nahiago dute ogiaren, patataren eta esnearen prezioa zertan den dakitenekin bat egitea. Esaterako, Abiadura Handiko Trena arazo domesti-

koa ei da, helburu politiko ekonomiko huskeriazkoa. Espainiaren besoetara bizkorrago eramango gaitue-na, negarretan goazenean legeak agintzen dituen eskumenak aldarrikatzera. Sosak EAE nazioarte mailan jarriko duen jarduera domestiko horietan xahutu behar dira. Edo Pasaia portutzar berrian: *Liberty of*

de Sesa-Royal Caribbean itsasontzian Euskalerrirratuko diren turistek dibisa mordoa utziko baitute La Bella Eason, esaterako. Eta errausteko labeak, biribilguneak eta zeharbideak, tunelak eta zubiak eraikiko dituzte, eta Elantxobeko goi-partea moilarekin lotuko duen eskailera mekanikoa jarriko dute, turisten mesederako.

Eta jakin dugu (ez esan inori) baldintza bakarra jarri diola ezkontide espainiarrak egonkortasun matrimonialak iraungo badu: Espainiako marko juridikoa eta barruan daraman Espainiako bandera errespetatzea.

Jakin dugu baldintza bakarra jarri diola ezkontide espainiarrak egonkortasun matrimonialak iraungo badu: Espainiako marko juridikoa eta barruan daraman Espainiako bandera errespetatzea. Eta PNVk, baietz

Espainiako marko juridikoa eta barruan daraman Espainiako bandera errespetatzea. Eta PNVk (Urkullu) baietz, markoa aldatu gabe egin daitezkeela aldaketak, barruko bandera ez dela oztopo.

Zer egingo diogu, ba! NAN genetiko berriztatu baino ez dute nahi PNVkoek ezkontzarekin. Zeren azken batean geneetan daramaten sentimendu penintsularrari ezin baitiote muzinik egin. ■

JULE GOIKOETXEA



**Kattalin
Miner**



KAZETARIA

Zezenak versus ardiak

DUELA URTE BATZUK, “espainolek” haien autoetan haien ez dakit zein izaera markatzeko zezen baten pegatina paratzen zutela eta, “euskaldunek” haien ez dakit zein izaera markatzen zuen ardi latxa pegatina asmatu zuten.

Ordutik, ikurrina bat eraman beharrean, ardi batek esaten digu aurrean doan autoa fidatzekoa den ala ez. Ardiak, zezenak edota katalanen astoak definitzen digu bertan doana.

Eta paradoxikoki, ardiak duen mehatxu handiena otsoa izan bada ere, ez dut eza gutzen haren nazionalitatea otso batekin

alderatu nahi izan duen herririk, beraz, ardiak, autoen mundu sinbolikoan, zezenek jaten dituzte.

Hara non, Donostian, EAJk gobernua hartu eta lehen astean hartutako bi neurri: hirira zezenketak itzuliko direla adieraztea, eta Ametzagaina parkean zeuden ardiak bertatik kentzea. Bat-batean eta urgentziaz hartutako bi erabaki horiek, autoen atzeko aldean dauden pegatinen balio sinboliko bera utzi didate. Ez dakit Eneko Goia alkateak zein animalia duen haien autoan, baina erabaki horiekin, otsoarena egiteko prest nor dagoen argi geratu zait. ■